

GERNIKA-LUMO / Hilabetean 200 dokumentutik gora eskuratzen ditu liburutegiak

Erabiltzaile eta mailegu kopurua ere handitu egin dela nabarmendu dute liburutegiko arduradunek.

M. ORUE. Erabiltzaile kopurua handitu ez ezik, bere funtsa handitzen ari da Gernika-Lumoko Udal liburutegia hilez hile. Urteko lehen sei hilabeteko emaitzak eman dituzte jakitera hango arduradunek eta, horien arabera, hilabete bakoitzean gutxi gorabehera 237 dokumentu eskuratzen ditu liburutegiak. Hain zuzen ere, 2009ko urtarilaren 1ean 30.318 dokumentu zituen eta gaur egun, aldiz, 31.742 daude erabilgarri.

Liburutegietako elkarte eta erakundeen nazioarteko elkarteak (IFLA) liburutegi publikoek biztanleko bi dokumentu izan behar dituztela gomendatzen du eta Gernika-Lumokoa kopuru horretatik gertu dago, 1,98 baititu biztanleko. Liburutegikoek diotenez, gomendatutako kopurura iristea dute helburu eta eskuratze politika helburu hori lortzera bideratuko dutela nabarmendu dute.

Erabiltzaileei dagokienean, liburutegiaren zerbitzua eskatzen dutenen kopuruak ere gora egin duela azaldu dute. Gaur egun 3.908 irakurle daude altan emanda. 2008ko lehenengo sei hilabetekoan 193 irakurlek alta eman zuten bitartean, 2009ko tarte berean 274k eman dute izena.

Mailegu kopurua, bestetik, bikoiztu egin da, 2008an mailegatutako 4.573 dokumentuetatik 2009ko 8.242ra igaro baikara. Erreserbei dagokienez, zenbatekoa hirukoiztu egin dela diote. 2009an liburutegiak kudeatutako erreserben kopurua 264koa izan da, iazko 75 erreserbekin alderatuta hirukoiztu baino gehiago egin direlarik erabiltzaileek egindako dokumentuen erreserbak.

'La chica que soñaba con una cerilla y un bidón de gasolina' da erabiltzaileek 2009an gehien eskatu duten liburua eta DVDa, aldiz, 'Triki, traka, tron'.

GEHIEN MAILEGATURIKOAK:

Liburuak

- ' La chica que soñaba con una cerilla y un bidón de gasolina' .
- ' Los hombres que no amaban a las mujeres' .
- ' Todo Mortadelo y Filemon' .
- ' La flor de la Argoma' .
- ' El fuego' .
- ' Placeres reales: reyes, reinas, sexo y cocina' .
- ' A los cuatro vientos' .
- ' Crepúsculo: un amor peligroso' .
- ' Hello Hoobs' .
- ' Mis soles esplendidos' .

DVDak

- ' Triki, traka, tron' .
- ' Aprender a jugar con Tommy & Oscar' .
- ' Erase una vez... El cuerpo humano' .
- ' Pippi Galtzaluzé' .
- ' Muzzy multilingual' .
- ' H2O Just and water: La película' .
- ' El señor de los anillos: trilogía' .
- ' Buscando a Nemo' .
- ' Las crónicas de Spiderwick=The Spiderwick chron' .
- ' Una canción del pasado' .